

2018-ko MATEMATIKA EBALUAZIOAK CE1

1. Ariketa

Aginduak :

« Ariketa honetan, erranen ditudan zenbakiak inguratuko dituzue.

Lerro bakoitzean, zenbaki bat baizik ez duzue inguratuko. Elkarrekin adibide bat eginen dugu.

Begira ezazue orain borobil beltzarekin hasten den lerroa. 1 zenbakia ingura ezazue. Has zaitetze.

Zenbakia hemen da.

Inguratu behar zen beraz.

Orain ulertu duzuela, hasiko gira. Borobil xuriarekin hasten den lerroa begira ezazue. 29 zenbakia ingura ezazue.

“Ariketa bukatua da. Ondoko orrialdera joan zaitetze, 2 garren orrialdean zarete.”

2. Ariketa

Aginduak :

“Orrialde honetan eta ondoko orrialdean, kalkulu/eragiketa batzuk buruz eginen dituzue eta lerroan idatziak diren zenbakien artean, erantzuna inguratuko duzue.

Begira dezagun elkarrekin borobil beltza duen lehen lerroa.

Kalkulua/eragiketa $5+2$ da, $5+2$ buruz egin ezazue baina erantzuna ez ezazuela erran. Orain, buruan duzuen erantzuna, borobil beltzaren parean den lerroan inguratu behar duzue. Has zaitetze, zuen erantzuna ingura ezazue.

Orain ulertu duzuela, segituko dugu. Lerro bakoitzarentzat, irudia erranen dizuet, lerroa ikus dezazuen, gero bi aldiz kalkulua/eragiketa erranen dizuet eta denbora utziko dizuet erantzuna inguratzeko. Behar bada ez duzue aldi guziz lortuko, baina ez da grabe/larria. Ez baldin badakizue, ez duzue deus inguratzen eta itxoiten/igurikatzen duzue ondoko eragiketa, nik erratea. Baina pixka bat baldin badakizue, dakizuena ingura ezazue, segur ez bazarete ere. Ez zaitetzela beldur, egin ezazue pentsatzen duzuen gisara. Inportantea da. Borobil xuriaren gainean zuen behatza/erhia eman ezazue, kalkulua/eragiketa $3+2$ da, $3+2$ buruz egin ezazue baina erantzuna erran gabe. Borobil xuria duen lerroan emaitza ingura ezazue.”

“Orrialdea itzul ezazue, 3 garren orrialdean zarete.”

“Ariketa bukatua da. Orrialdea itzul ezazue, 4 garren orrialdean zarete.”

3. Ariketa

Aginduak :

« Orrialde honetan, gaineko zenbakia osatzen duten domino guziak inguratuko dituzue : ariketaren lehen orrialdean, 7 zenbakia da.

Kasu, batzuetan dominoa bi zatitan da, beste batzuetan hiru zatitan da. Dominoaren zatietan agertzen diren marrazki guziak gehitu behar dira. Marrazki ttipiak badira, denak kontatu behar dira eta zenbakia osatzen badute, dominoa inguratu behar dira.

Elkarrekin adibide bat eginen dugu arbelean.

Arbelean marraztu ditudan itxura guziek 3 egiten ote dute?

Dominoan den guzia kontatuz 3 egiten badu, orduan dominoa inguratzen duzue.

Orain ulertu duzuela, gaineko zenbakia osatzen duten domino guziak inguratu behar dituzue, 7 zenbakia da. Kasu, ariketak 5 garren orrialdean segitzen du, 13 zenbakiarekin. Hasten ahal zarete. »

“Ariketa bukatua da. Orrialdea itzul ezazue, 6 garren orrialdean zarete.”

4. Ariketa

Aginduak :

« “Orrialde honetan, bi zenbaki dituzten laukizuzenak badira. Laukizuzen bakoitzean, zenbaki handiena marratu behar da.

Ariketa hasi aitzin, 4 adibide horiek, elkarrekin eginen ditugu.

Ezkerreko orrialdea begira ezazue. 1 eta 3 duen laukizuzenean, zendako 3 zenbakia marratua da?	1 3
3, 1 baino handiago delako/baita. Azpian den laukizuzenean, 6 eta 3-ren artean, zein da handiena?	6 3
6 da, bai. Beraz 6 marratu behar da marratxo bat eginez. Orain, beste bi laukizuzenak, bakarrik egin itzazue, ikus dezadan ongi ulertu duzuenez.	4 5
	9 7

Orain ulertu duzuela, ariketa hasiko dugu. Abiadura ariketa da. Minutu bat baizik ez du irauten./ Minuta bat bakarrik irauten du. Segur aski ez duzue bukatuko baina ez da grabe/larria. Inportanteena, ahalik eta gehien /ahal bezainbat egitea da.

Kronometroa piztuko dut. Anartean, denek estiloa altxatzen duzue, besoa gora.

Ondoko orrialdera joan zaitetze, 7 garren orrialdean zarete.

HASI erranen dudalarik, hasten ahalko zarete eta GELDI erranen dudalarik, gelditu beharko zarete, estiloa altxatu eta orrialdea itzuli. »

“Ariketa bukatua da. Orrialdea itzul ezazue, 8 garren orrialdean zarete.”

5. Ariketa

Aginduak :

« Ariketa honetan, buruketak ebatziko dituzue. Aldi oroz, buruketa bat irakurriko dizuet, galdera batekin. Galderari erantzuteko, kuadroaren azpian lerrotatuak diren zenbakien artean, emaitza inguratu behar duzue.

Laguntza gisa, kuadroa erabiltzen ahal duzue zenbakiak idazteko, marrazkiak egiteko, kalkulatzeko...

Behar bada ez duzue aldi guziz lortuko, baina ez da grabe/larria. Ez baldin badakizue, ez duzue deus inguratzen eta itxoiten/igurikatzen duzue ondoko buruketa, nik irakurtzea. Aldiz, pixka bat baldin badakizue, dakizuena inguratzen duzue, segur ez bazarete ere. Ez zaitzela beldur, egin ezazue pentsatzen duzuen gisara. Inportantea da.

Orrialdearen gaineko partean, borobil beltz bat bada. Hor da hasi behar. Buruketa ongi entzun ezazue. Oroitarazten dizuet kuadro hutsa erabiltzen ahal duzuela zuen ikerketak idazteko edo zuen marrazkiak egiteko. Oroz gainetik, ez ezazuela ahantz kuadroaren azpian zuen emaitza inguratzea. »

●	Pierre-k 10 kanika bazituen. Aire hartzean, 4 irabazi ditu. Zenbat ditu orain ?
○	Sophie antzara jokoan jostatzen ari da. 9 garren laukitxoan da. 7 laukitxo gibelatu/atzeratu behar da. Zein laukitxora helduko da ?
➔	Sukaldean, 12 baso hauskor baziren. 8 baizik ez dira gelditzen. Zenbat baso hautsi da/ hautsi dira ?
⇒	Nire ahizpak nik baino 5 urte gehiago ditu. Nik 6 urte ditut. Zenbat urte du nire ahizpak?
■	Bere moltsan, Leo-k 24€ ditu. Lilou-k baino 8€ gehiago baditu. Zenbat euro du Lilou-k ?

« Orrialdea itzul ezazue, 10 garren orrialdean zarete. »

“Ariketa bukatua da. Ondoko orrialdera joan zaitzete, 11 garren orrialdean zarete.”

6. Ariketa

Aginduak :

Orain, zenbaki lerroaren/lerro numerikoaren ariketa eginen dugu.

Orrialde honetan eta ondokoetan, zenbaki bat beste biren artean atzematen saiatuko zarete. Elkarrekin adibide bat eginen dugu.

Lerro hau begira ezazue, 0 tik 10 era doa/joaten da. 0 tik 10 era doazen/joaten diren zenbaki guztiak lerroan dira.

Lerroaren gainean marratxo bat erakutsiko dizuet eta nahi nuke erran dezazuen zer zenbaki kokatzen den leku honetan.

Adibidez, marratxo hau erakusten badizuet, zer zenbaki kokatzen da hemen?

0 da, bai!

Oraingoan, marratxo hau erakusten badizuet, zer zenbaki kokatzen da hemen?

10 da, bai!

Orain, zuen kaierean den adibidera pasatuko gara.

Zuen kaierean, berriz ere lerroak ikusiko dituzue, baina lerro horien hastapena eta bukaera ariketa bakoitzean aldatzen dira. Lerro bakoitzaren gainean marratxo bat bada, etiketa huts batekin.

Lerro bakoitzaren azpian, erantzunak proposatuak dira. Marratxoaren etiketari doakion zenbakia inguratu behar duzue.

Azpian, proposatuak diren erantzunak begira itzazue, zer zenbaki ezartzen ahal dugu marratxoak erakusten duen etiketa hutsean? 2 da, bai. 2 erantzuna inguratuko dugu beraz.

Orain denek ulertu duzuela, ariketa honetan bakarrik lan egingen duzue.

Behar bada ez duzue aldi guziz lortuko, baina ez da grabe. Ez baldin badakizue, ondoko zenbaki lerroa pasatzen ahal zarete. Ez zaitzela beldurtu, egin ezazue pentsatzen duzuen gisara. Inportantea da.

Ez ahantz orrialdeak itzultzea, ariketa hau 16 garren orrialdean bikatzen baita. Has zaitzete.”

“Ariketa bukatua da. Ondoko orrialdera joan zaitzete, 17 garren orrialdean zarete.”

7. Ariketa:

“Orrialde honetan eta ondokoan, eragiketa batzuk buruz egingen dituzue eta eragiketaren parean lerrokatuan diren zzenbakien artean, egokia dena inguratuko duzue.

Adibide bat elkarrekin egingen dugu arbelean. Estiloak pausa itzazue.

Eragiketa hau da : $5 + 3$, $5 + 3$ buruz egin ezazue. Zer da erantzuna ? 8 da, bai. Erantzun proposamenen artean, inguratzen dugu.

Orain ulertu duzuela, bakarrik segituko duzue. Behar bada ez duzue aldi guziz lortuko, baina ez da grabe/larria. Ez baldin badakizue, ez duzue deus inguratzen eta segitzen duzue. Aldiz, pixka bat baldin badakizue, dakizuena ingura ezazue, segur ez bazarete ere. Ez zaitzela beldur, egin ezazue pentsatzen duzuen gisara. Inportantea da. Kasu, kenketak eta gehiketak badira. Eta ariketa bi orrialdeetan da. Lehen orrialdea bukatu eta, orrialdea itzul ezazue eta gibelean segi ezazue. Has zaitzete.”

Ariketa bukatua da. Ondoko orrialdera joan zaitzete, 19 garren orrialdean zarete.”

8. Ariketa:

“Orrialde honetan, zenbakiak erranen dizkizuet, leku egokian zifrez idatzi beharko dira.

Zenbakiak bi aldiz erranen ditut, ez gehiago.

Ez baldin badakizue, ez da grabe, zenbakia idatzi behar zenuten laukitxoan gurutze bat egizue eta itxoin/figurikatu ezazue ondoko zenbakia erratea. Aldiz, pixka bat baldin badakizue, dakizuena idatz ezazue,

segur ez bazarete ere. Ez zaitezela beldur, idatz ezazue pentsatzen duzuenara. Inportantea da. Adi egon/Ongi entzun.

Zuen behatza/erhia borobil beltzaren gainean ezar ezazue.

Borobil beltzaren ondoko laukitxoan, idatz ezazue....”

“Ariketa bukatua da. Orrialdea itzul ezazue, 20 garren orrialdean zarete.”

9. Ariketa:

“6 irudi hauek begira itzazue. Zer marrazki mota ikusten duzue?

Marrak eta karratu beltz bat ikusten dira, bai. Zuen ustez, zein da desberdina den marrazkia?

Karratua, bai. Gurutze handi batez marratuko dugu., has zaitezte, marra ezazue.

Orain ulertu duzuela, bakarrik segi ezazue azken orrialdea arte. 6 irudi diren aldi bakoitzean, arrotza dena marra ezazue, hau da : berdina ez den marrazkia marra ezazue. »

« Biba zuek, ongi lan egin duzue. Hortan uzten dugu, kaierak hesten ahal dituzue.”